

BALOREZKO PROPOSAMENA

Planetaren egoera kaxkarra ikusita, itsasoan dagoen plastiko guztia esate baterako, argi dago zerbait egin behar dela, aldaketa txikietatik hasita. Beraz, etorkizun berdegoa lortzeko, ezinbesteko deritzogu birziklatzeari.



Tamalez, gaur egun oso gaztetatik erakutsiagatik, jende ugari dago birziklatzen ez dakiena, adineko jendea gehienbat. Horregatik, denok birziklatzen jakin ezean, egungo birziklatze sistema ez da eraginkorra.



Hori dela eta, teknologiak ahalbidetzen duenez, automatikoki birziklatzen duen zakarrontzi bat egitea otu zaigu: *Erreziklator*[®]. Gainera, birziklatze automatikoak klasifikazio zehatzago bat ahalbidetzen du, plastiko mota desberdinak banatzea adibidez.

Bestalde, *Erreziklator*-ek energia berriztagarrien bidez (eguzki panelak) funtzionatzen du, zeinetan Espainiar Estua aitzindaria baita. Beraz, ez du sare elektrikoarekiko dependentziarik.

